BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3470

AGINDUA, 2012ko maiatzaren 28koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Basauriko (Bizkaia) CPI «Velázquez-Cervantes» IPI ikastetxearen izen espezifikoa aldatzeko baimena emateko dena.

Basauriko (Bizkaia) «Velázquez-Cervantes» Ikastetxe Publiko Integralaren izen espezifikoa aldatzeko aurkeztu den proposamena aztertu da.

Espediente horren izapideak araudiak ezarritako prozedura jarraituz egin dira; gainera, indarrean dauden arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta, bestalde, arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Gai horretan aplikatu beharreko legeria ikusi ondoren, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Onartu egiten da CPI «Velázquez-Cervantes» IPI ikastetxeari izen espezifikoa aldatzea: aurrerantzean CPI «Soloarte» IPI izango du izena. Ikastetxe hori Basauriko udalerriko (Bizkaia) Soloarte kaleko 2. zenbakian dago, eta 48017575 kode-zenbakia du.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 28a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.